

Azokak egingo dira Hego Euskal Herriko hiriburuaren Liburuaren Eguna dela eta

Bilbon, Paperezko Farolilloak saria eman zieten atzo Harkaitz Canori, Ramiro Pinillari eta Felix G. Modroñori

Hego Euskal Herriko hiriburuaren eta hainbat herritan liburu azokak eta bestelako ekitaldiak izango dira gaur, Nazioarteko Liburuaren Egunaren harira. Bilbon, Paperezko Farolilloak saria eman zieten atzo Ramiro Pinilla, Felix G. Modroño eta Harkaitz Cano idazleei eta Bilbotar Berreskuratuak bildumari. Horrez gain, Liburuaren Eguna dela eta, gaur azoka jarriko dute, eta hainbat ekitaldi egingo dituzte. Berastegi kalean izango da, eguerdian hasita.

Donostiako Gipuzkoa plazan salmahaiaik jarriko dituzte 09:30ean liburu saltzaileek. Donostia Kulturak eta Gipuzkoako Liburu Saltzaileen Elkarteak elkarlanean hainbat ekitaldi antolatu dituzte, eta Gipuzkoa plazan egingo dituzte. Besteren aranean, ipuin kontalaria eta jendaurreko irakurketa izango dira 13:00etan, eta Juan Karlos Izagirre alkateak eta alderdi politiko guztietako ordezkariek hartuko dute parte. 17:00etan, 1813 mahai ingurua egingo dute. Javier Sadak, Jose Antonio Aspiazuk eta Iñaki Egañak parte hartuko dute, duela 200 urte hiriak pairatu zuen erreketari, arpilatzeari eta abarri buruzko liburuak argitaratu baitituzte.

Barikuan, Zilarrezko Euskadi sariaren banaketa ekitaldia izango da. Irizpideak aldatu dituzte Gipuzkoako liburu saltzaileek: aurreko urteetan gehien saldu ziren liburuei ematen zieten saria, baina aurten soilik kalitate irizpideak erabiliko dituzte. Euskarazko liburua izango da bat, eta gaztelerazkoa beste bat.

Gasteizen eta Iruñean ere bai

Iruñeko Karlos III. Noblearen etorbidean hamabi liburu dendak erakusmahaiaik jarriko dituzte. Liburuak salgai jarriko dituzte, eta %10eko beherapena izango dute, eta arrosak oparituko dizkiete hurreratzen direnei. 10:00etatik 21:00etara izango dira han.

Gasteizen ere erakusmahaiaik jarriko dituzte kalean liburu dendek, eta %10eko beherapena jarriko diete salgaiei biharko egunez. 10:00etatik 21:00etara egongo dira Espainia plazan. Hainbat autore izango dira han, euren lanak sinatzeko. Arana gizarte etxearen ipuin kontalaria eta marrazketa tailerra antolatu dituzte 18:30ean, eta 20:00etan Jose Luis Sampedro idazlea omentzeko ekitaldia egingo dute Ibaiondo liburutegian. Bihar ipuin kontalaria izango da Ariznabarrena gizarte etxearen, eta etzi, Abetxukoko Kultur Etxean.